

38 egunez egun

2012ko martxoa-apirila



Beasaingo udal aldizkaria

beasain



Beasaingo Udala

Beasaindarren elkartasuna Lodosako Ibaialde ikastolari

2 iritzia 3 auzotako bilerak 4 zinegotzien ordainsariak 5 Lodosako ikastolari laguntza
6-7 udal aurrekontuak 8 hurrengo proiektuak 9 lankidetzaren proiektuak 10 laburrak



Diseinu berria, ilusio berriak

tza eman nahi diegu herritarrei. Honekin batera, herriko ekintzak jasoko dituen aldizkaria ere izango da honakoa. Alez ale, aldizkaria hobetzen joatea da asmoa, herritar guztien parte hartzearekin, aldizkaria osatzea dugu helburu.

Ale honetan hainbat gai izango dituzue irakurgai: auzoetako bilerek emandakoarekin zer pauso jarraituko ditugun; Lodosako Ibaialde ikastolari emandako diru laguntzaren inguruko elkartasun ekitaldia; 2. liberatuaren kostuaren eta zergatien azalpena; 2012. Urterako onartutako aurrekontuen azalpena; lankidetzeta programak eta deialdien berri; udara bitarte udalak esku artean izango dituen lanketa batzuen informazioa. Eta, azkenik, udal gobernu taldearen osaketa eta zinegotzi bakoitzak dituen harrera orduak; herritarren kezka, proposamenak eta ideiak entzuteko eta konpartitzeko asteroko hitzorduak. Udala herritarrei ireki eta herritarren parte hartzea eta inplikazioa bilatzen eta sustatzen jarraituko dugu.

Con esta publicación de renovado diseño, el gobierno municipal quiere compartir sus ilusiones y sus retos. Nuestra intención es ir informando sobre las iniciativas puestas en marcha por el ayuntamiento. Al tiempo de informar, queremos reforzar la participación ciudadana. Esta publicación viene a ser un lugar de encuentro para los vecinos; suya será la palabra. No solo informaremos de los trabajos del ayuntamiento; esta revista recogerá también las actividades realizadas en Beasain. En este número, informaremos sobre los pasos a seguir para dar continuidad a las reuniones realizadas en los barrios; el acto en solidaridad con la ikastola de Lodosa; el coste y el porqué del segundo liberado; el presupuesto de este año; los programas y las convocatorias de cooperación; la formación del grupo de gobierno y del horario de servicio de atención a los vecinos que ofrece cada concejal. Estas horas se usarán para escuchar y compartir las preocupaciones de los vecinos, sus propuestas y sus ideas.

Diseinu berritua duen lehen aldizkari honekin, udal gobernu erronka eta ilusio berriekin dator. Alero-alero, udalak bideratu dituen ekimenen inguruko informazioa argitaratuko dugu; bestalde, martxan ditugun lanketen berri ere emango dugu, herritarrek informatuak izateko, eta horrekin batera, gai desberdinetan herritarren parte hartzea sendotzen joateko. Aldizkari honek herritarren kezken plaza izan nahi du, hi-


inkesta zer antolatuko zenuke herriko festetan?



Maria Aierra

Nafarra naiz eta Nafarroan egiten duten bezala, txaranga gehiago jarriko nituzke, jendea txarangaren atzetik dantzatzeko giro ona sortzen da eta. Alde horretatik, festetako astelehena eta bigarren larunbata oso politak izaten dira. Tabernetatik aterako nuke jendea eta festa.

Soy navarra, y echo de menos el ambiente que ponen las charangas. Sacaría la gente de los bares.



Alex Roman

Tabernaria naiz eta tabernan nahikoa lan izaten dugu festetan, egun horietan ez dut besterik izaten buruan. Hala ere, herri bazkari edo afari gehiago jarriko nituzke, kantu afariren bat edo.

Soy camarero y en las fiestas tengo suficiente con el trabajo. Pero echo en falta más comidas o cenas populares.



Irati Apalategi

Azkeneko urteetan, umeak direla eta ez dut festetan gehiegi parte hartzen. Baina orain umeak dauzkagula, umeentzako ekintza gehiago antolatuko nituzke. Askotan barraketatik kanpo eta ez da gauza handirik egoten. Jolasak, ikuskizunak, pailazoak... jarriko nituzke.

Organizaría más actividades infantiles. Más juegos, más espectáculos, más payasos...

Auzoetako batzarren balorazio positiboa

Udal gobernu taldeak auzoetako batzarren balorazio positiboa egin du, eta parte hartu duten herritarren jarrera ona eskertu du

Herritarren parte hartzean oinarritutako udal gestio batera bidean, Beasaingo Udal Gobernu Taldeak auzoetako batzarren erronda egin du azken hilabeteetan. Udalak, eskerak eman nahi dizkie batzar horietan parte hartu duten herritar guztiei, eta etorkizunean ere, «lan egiteko modu horiek ohikoago eta emankorrago izan daitezten lanean jarraitzeko borondate irmoa» agertu du. Batzar erronda «oso modu positiboan» baloratu du udalak, eta bertan jasotako «kexak eta iradokizunak errespetuz lantzeko konpromisoa» hartu du.

Autokritika ere egin du udalak, eta «herritarren parte hartzea normalizatze bidean, pauso asko» eman beharko direla azaldu du. Zentzu horretan, «informazioa gardentasunez» eman eta «parte hartzeko guneak eta tresnak sor-

tu» behar direla uste dute, benetako eredu parte hartzailea garatu ahal izateko.

lazo azaroan egindako batzarretan, 450 herritarrek gora izan dira parte hartu dutenak. Bilkura horietan, herritarren kexak eta iradokizunak jasotzen dituzte, eta gidoi jakin bat ez izateak, zenbaitetan batzar horiek «nahiko kaotikoak» izatea eragin duela aitortu du udal taldeak. Hala ere, herritarrek «jarrera eredugarria» erakutsi zutela uste dute.

•• Auzoetako batzarretan 450 herritarrek parte hartu dute, eta haien kexak eta iradokizunak txosten batean bildu ditu udalak ••

Auzo txikietan parte hartzea errazago izan da, batez ere talde txikiagoak zirelako. Herrigunean, ordea, «jende kopurua dela medio, batzarretan ez da gaiak egoki lantzeko aukera handirik izan». Hala, aurrera begira, erdialdea gune gehiagotan zatitu eta batzar gehiago egiteko beharra ikusi dute.

Herritarrekin egindako batzarretan atera diren «gai guztiei erantzuteko helburuarekin hainbat pauso» ematea aurreikusten du. Aurrenekoa, kexa eta iradokizun horiek guztiak txosten batean biltzea izan da. Txosten hori, bi arlotan banatu dute: lanketa berezirik behar ez duten gaiak eta lanketa handiagoa eskatzen dutenak. Aurreneko taldekoak, «ahalik eta azkarren» bideratuko dituzte udal batzordeetara. Lanketa berezia behar duten gaiak, berriz, batzordeetan aztertu eta zein helbururekin, ze tresna erabiliz eta zein epetan landuko diren erabaki beharko dute. Lanketa horren guztiaren jarraipena, Parte Hartze Batzordeak egingo du.

oharra

Auzoetako batzarren inguruko txostena udalaren webgunean dago ikusgai: www.beasain.org



El equipo de gobierno municipal ha llevado a cabo una ronda de reuniones en los diferentes barrios de la villa, con el objetivo de impulsar un modelo de gestión basado en la participación ciudadana. Dicho equipo quiere agradecer su presencia y participación a todos los ciudadanos que han acudido a estas reuniones, y se compromete a que «este

modo de trabajo sea cada vez más común y productivo».

El equipo de gobierno también hace autocrítica, ya que algunas reuniones como la del centro, se convirtieron «en un pequeño caos, debido, sobre todo, a la cantidad de gente». Aun así, creen que el comportamiento de los ciudadanos ha sido «ejemplar».

Con las quejas y sugerencias hechas por los vecinos, han elaborado un dossier que se divide en dos partes; los proyectos que no necesitan mayor desarrollo, que se derivarán a las comisiones correspondientes; y los que necesiten un mayor desarrollo, en cuyo caso cada comisión decidirá cómo, cuándo y con qué medios se deben llevar a cabo.

Politikarien ordainsariak % 25 jaitsi ditu udalak

Alkatearen eta lanaldi osora dagoen zinegotziaren soldatak murriztu egin dira; baita politikariei dagozkien ordainsariak ere

Otsailaren 16ko udalbatzan onartu zen, Bilduko Aitor Larburu zinegotziak, lanaldi osoko ardura izango duela udaletxeko lanetarako. Udal antolaketaz arduratuko da Larburu. 47.281 euroko soldata izango du. Aurreko agintaldian, lanaldi osoko ardura zuen zinegotziak, 75.871 euro kobratzen zituen. Soldatarekin jarraituz, alkatearen kasuan, Koldo Agirrek 56.436,94 euro kobratuko ditu urtean. Aurreko legegaldian, 71.280,16 euro jaso zituen Plazaolak.

Larbururen ardurarekin, «aurreko agintaldian udal gobernuak zeukan dedikazio maila berean jarri da oraingo udal gobernuua. Dena den, baldintzan berdinduta ere, %25ean jaitsi dira diru




Aitor Larburu.

irteerak», zehaztu du udalak. Beheko grafikoan ikus daitezke aurreko eta oraingo agintaldiko soldaten eta ordainsariei dagozkien ezberdintasunak.

Politikarien ordainsariak

Udala osatzen duten gainerako politikariek, batzordeetan eta udalbatzetan parte hartzeagatik, ordainsaria jasotzen dute. Orain artean, zinegotziei, urtean, ordainsari zehatz bat ematen zitzaien, bileretan parte hartu ala ez hartu. Bilduk, politikariei dagozkien ordainsaria arautu eta gehieneko kopurua zehaztu du, ordaina, partehartzearen arabera izaten baita. Gobernu batzordeko zinegotziek, urtean, gehienez, 9.000 euro jasoko dituzte; gainerakoek, urtean, 6.000 euro.



El Pleno del ayuntamiento celebrado el 16 de febrero aprobó la liberación a jornada completa del concejal Aitor Larburu. Larburu tendrá la responsabilidad de la organización del ayuntamiento. Percibirá 47.281 euros. La pasada legislatura el concejal liberado a jornada completa, percibía 75.871 euros. Bildu señala que con la responsabilidad ad-

quirida por Larburu, el actual Gobierno se equipara al anterior en cuanto a dedicación se refiere, pero con una reducción del %25 en el apartado de los gastos. El alcalde Koldo Agirre, cobra 56.436,94 euros; el anterior alcalde, cobraba 71.280,16 euros.

Respecto a las asignaciones del resto de concejales, percibirán una asigna-

ción por asistencia a plenos y comisiones. Según el criterio vigente hasta el momento, todos los concejales percibirán una cantidad fija de dinero, participarán o no en los citados órganos. Los concejales que componen la Comisión de Gobierno recibirán un máximo de 9.000 euros. El resto, recibirá 6.000 euros anuales.



Lodosako ikastolara, Beasaindik elkartasuna

Lodosako Ibaialde ikastolak (Nafarroa) egoera ekonomiko larria bizi du. Beasaingo Udalak 6.500 euro emango dizkio.

Ikastolen Elkarteak *Ikasle bat, euro bat* kanpaina hasi zuen udazkenean, Lodosako Ibaialde ikastolaren alde dirua biltzeko helburuarekin. Elkartasun ekimen horrek, Lodosako ikastolak bizi duen egoera ekonomiko zaila arintzen lagundu nahi izan du. Izan ere, Lodosako ikastolak, Eusko Jaurlaritzatik eta Espainiako Gobernutik jasotzen zituen diru laguntzak eten egin dira, eta Nafarroako Gobernutik ere ez dute diru laguntzarik jasotzen.

Egoera horren aurrean, eta ikastolaren itxiera ekiditeko eta ikastolaren bizi iraupena ziurtatzeko, Euskal Herriko he-

rri ezberdinetan hainbat diru bilketa egin dituzte, horietako bat Beasainen. Beasaingo Udalak, 6.500 euro emango dizkio Lodosako ikastolari.

●● **Egoera ekonomiko larria bizi du Lodosako ikastolak, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako eta Nafarroako Gobernuek ez baitie dirurik ematen** ●●

La Federación de Ikastolas está llevando a cabo la campaña *Un alumno, un euro*, con el fin de recaudar dinero para la ikastola Ibaialde de Lodosa (Navarra). La supresión de las subvenciones que percibía por parte del Gobierno de España, Gobierno Vasco y Gobierno de

Navarra, a avocado a la Ikastola Ibaialde de una muy difícil situación económica. El Ayuntamiento de Beasain a destinado 6.500 euros a la ikastola de Lodosa. Por su parte, Andramendi ikastola también ha hecho su aportación: cuatro euros por alumno.

Beasaingo Andramendi ikastolak bere aldetik, diru bilketa ere egin du. Helburua ikasleko euro bat biltzea bazen ere, Beasaingo ikastolak, egin dituen ekintza ezberdinetan, ikasleko lau euro bildu ditu, 800 euro guztira.

Diru ekarpena, ekitaldi baten bidez borobildu nahi izan du udalak. Martxoaren 15ean, Lodosako eta Andramendi ikastolako ordezkariak bertan zirela, diru emate ekitaldia egin zuten. Beasaingo ikastolako haurrek agurra dantzatu ondoren, Andramendiko lehendakariak, Aimar Larreak, eta Beasaingo alkateak, Koldo Agirrek, hartu zuten hitza. Nafarroako haurrek euskaraz ikasteko duten eskubidea aldarrikatzeaz gain, euskarak elkarlana eta auzolana beharrezkoak dituela gogorarazi zuten. Lodosako ikastolako gurasoen elkarte Ana Mendizabalek, diruaren ekarpena garrantzitsua den arren, azkeneko hilabeteetan jaso dituzten elkartasun adierazpenek eta berotasunak, borrokan jarraitzeko indarra eman dietela esan zuen, nafar guztiek euskaraz ikasteko aukera dutela aldarrikatuz.

El pasado 15 de marzo, en un acto celebrado en el ayuntamiento, se hizo la entrega del dinero recaudado en Beasain. En el acto participaron representantes de la ikastola de Lodosa. Agradecieron las muestras de calor que han recibido estos últimos meses.

Udal aurrekontua onartu dute

Udalak 13,5 milioi euroko aurrekontua onartu du, iaz baino %3 txikiagoa; gastu arruntei eustea izan da erronka nagusia

Beaसाingo Udalak legealdi berriko lehendabiziko aurrekontua onartu du. Ekonomiaren egoera orokorak eragina izan du udalen finantzaketan ere, eta gobernu taldeak, garai hauetara egokitutako zenbakiak aurkeztu ditu. Guztira, 13,5 milioi euroko aurrekontua izango dute aurten, iaz baino %3 txikiagoa. Zentzu horretan, kapitulurik kaltetuena inbertsioena izan da, ia %25eko jaitsiera izan baitu.

Aurrekontua egiterako garaian, herritarren eta gainontzeko alderdien proposamenak kontuan izan ditu udal taldeak. Batetik, herritarrekin auzoz auzo egindako bileretan jasotako hainbat ideia eta proposamen bildu dituzte. Bestetik, alderdi bakoitzarekin bospasei bilera egin dira, eta horietan jasotako proposamenen %80 aurtengo aurrekontuan jaso dituela azaldu dute. Horrela, alderdien arteko komunikazioa hobetzeko «urrats handia» eman dela uste dute, eta aurrerantzean ere beraien «ahalegina bide horretan» joango dela berretsi dute.

El ayuntamiento ha aprobado los primeros presupuestos de esta legislatura. La situación económica actual ha obligado al equipo de gobierno a presentar unas cuentas basadas en la austeridad y la contención de gastos. El presupuesto del ayuntamiento será de 13,5 millones de euros, un 3% menos que el año pasado. En ese sentido, el capítulo más castigado ha sido el de las inversiones, con una bajada del 25%.

A la hora de elaborar los presupuestos, el equipo de gobierno ha tenido en cuenta tanto la opinión de los ciudadanos, como la de los demás partidos políticos. De hecho, se ha incluido el 80% de las propuestas hechas por los demás partidos. El equipo de gobierno cree que se ha dado «un gran paso» para

Azken urteetan, urtez urte gora egin du Beasaingo Udalaren aurrekontuak, baina aurtengoak, «murrizketek baldintzatutako aurrekontuak» izango direla azaldu dute. Hala, jaitsiera izango da, bai gastuetan eta bai sarreretan. Sarreari dagokionean, kontuan izan behar da iazko urtearen bukaeran, udal tasak eta zergak ez igotzea erabaki zela. Zentzu horretan, biztanlegoaren igoerari esker eutsi zaio tasetatik jasotzen den diru kopuruari.

Bestalde, aldundiaren foru funtsari itzuli beharreko kopurua dago. 2009. urteari zegokion kopurua, hiru urtetan itzultzea erabaki zen. Horri, azken hiru urteetako itzulpenak gehitu behar zaizkio; 2011. urtekoa ere, aurten likidatuko da.

Udalaren zorpetze maila %6,23koa zen urte hasieran, eta urtea bukatzerako, %6,67koa izatea aurreikusten da. Datu hori «nahikoa ona» dela uste dute. Gainontzean, udalak bi mailegu ditu une honetan, bata 5,5 milioi eurokoa, eta bestea milioi erdikoa. Hala ere, ten-

•• Udal gobernu taldeak legealdiko plana onartu nahi du uda aurretik, «herritarrekin, eragileekin eta alderdiekin adostuta» ••

•• La situación actual ha obligado a presentar unas cuentas basadas en la austeridad y la contención de gastos ••



tuz hartzen dute datu hori; izan ere, «hor badago baldintza bat. 2013ko otsailean Beasain Lantzenen 1.900.000 euroko zorra pasako zaio Beasaingo Udalari». Horrek, zorpetze maila handitzea ekarriko du.

Egoera horren aurrean, gastuei eustea izan da aurrekontua osatzerakoan gobernu taldeak izan duen erronka nagusia. «Esan liteke gastu arruntari eustea lortu dugula, herritarrentzako sentisbleenak diren ataletan murrizketarik planteatu gabe». Hala, gastu orokorra %3 jaitsi bada ere, udal langileen soldatak mantendu dira eta herriko elkartei

mejorar la comunicación entre los partidos.

Los presupuestos aprobados están «condicionados por las reducciones», y habrá importantes bajadas, tanto en los gastos como en los ingresos. También hay que tener en cuenta la cantidad a devolver al fondo foral de financiación, ya que a la cuantía de este año hay que añadir lo que queda por pagar de los ejercicios del 2009, 2010 y 2011. La deuda del ayuntamiento es del 6,67%, un dato «bastante bueno» según el equipo de gobierno.

Una vez aprobados los presupuestos, el objetivo del equipo de gobierno es elaborar un plan para toda la legislatura, contando con la opinión de los ciudadanos y los demás partidos.



Udalbatzak otsailaren 16ko osoko bilkuran onartu zuen aurrekontua.

emandako laguntzetan KPlren igoera aplikatuko da. Zinegotzien asignazioetan (%25) eta inbertsioetan (%24,6) izan dira jaitsiera handienak.

Legealdiko plana

Udalak azaldu duenez, aurten onartutako aurrekontuan «ez dira islatzen aurrea begira talde honek egingo dituen proiektuak. Aurrekontu hauek, orain arteko ildoen jarraipenekoak dira, murrizketek baldintzatutakoak». Hala, gobernu taldeak legealdiko plana osatu nahi du uda aurretik. Plan horretan, legealdian zehar egingo diren proiektu des-

berdinak jasoko dituzte, «herritarrekin, eragile ezberdinekin eta beste alderdiekin adostuta». Behin eragile guztiekin bildu eta plangintza adostutakoan, datozen urteetako aurrekontuetan jasoko dira gainontzeko proiektu eta egitasmo guztiak. Hala, «hurrengo aurrekontuak, gure ukitu gehiago izango dituen planteamendu bat» izango duela azaldu dute. Bide horretatik, «herriaren beharrik betetzeko garaietan ez gara geldirik geratuko, eta legealdiari begira, gauzak egiteko tarte handiagoa izango dugu, guztion artean erabakitzen dugun norabidean».

Datua:

13.534.482

EURO. Beasaingo Udalak 13,5 milioi euroko aurrekontua izango du 2012. urterako. Atalka honela dago banatuta:

Udal aurrekontua

ARLOA	Kopurua (eurotan)
Ogasuna	3.720.256,93
Ongizatea	1.668.606,21
Euskara	387.863,24
Kultura	983.862,02
Parte hartzea, berdintasuna, hezkuntza eta migrazioa	884.937,50
Hirigintza	741.159,87
Gaztedia	183.190,00
Gobernazioa	1.090.474,60
Zerbitzuak	3.319.647,71
Landa eremua	172.888,00
Ingurugiroa	86.601,00
Emakumea	9.633,79
Igartza	218.510,00
Merkataritza	66.852,00
GUZTIRA	13.534.482,87

oharra

Udal aurrekontuen txostena eta aurkezpeneko bideoa ikusgai daude webgunean: www.beasain.org

Udal aurrekontuak osatzeko irizpide nagusiak

SARRERAK:

Sarreretan murrizketa handiak daude (%5), beraz, aurrekontuak estuak dira.

Bajada de ingresos alrededor del 5%, por tanto, estamos obligados a presentar unos presupuestos de contención.

Zerga ltaunduen partaidetzan (aldundia), murrizketei eta itzulpenei aurre egin beharko dio udalak.

Bajada de ingresos del Fondo Foral + devoluciones.

Aprobetxamendu urbanistikoetako sarrerek etenaldia izan dute. 2011n 1.665.182 euro, aurten 400.000 euro.

Frenazo en la actividad urbanística y en los ingresos por aprovechamiento.

Tasetan eta zergetan igoerarik ez dagoen arren, sarrerak hobetu egingo dira, biztanlegoaren igoerari esker.

A pesar de la congelación de las tasas, mejorarán los ingresos, gracias a la subida de la población.

IRTEERAK:

Gastuak oro har mantendu egingo dira.

El gasto en general se mantiene.

Ogasuna: Politikarien asignazioak %25 jaitsiko dira.

Hacienda: Reducción del 25% en las asignaciones a los políticos.

Ongizatea, kultura, euskara, gaztedia, udal antolakuntza, zerbitzuak eta merkataritza arloetako gastua mantendu egin da.

Se mantiene el gasto en las siguientes comisiones: hacienda, cultura, euskara, juventud, organización municipal, servicios y comercio.

Hezkuntzan %10eko igoera izan da, eta hirigintzan %20ko jaitsiera.

Subida del 10% en educación y bajada del 20% en urbanismo.

Inbertsioetan murrizketa handia

Egoera ekonomikoak baldintzatutako aurrekontuak dira eta inbertsioen atalean egin du udalak murrizketarik nabarmenena

Diru sarrera gutxiago izango direnez, «esfortzu finantziero berririk» ez egitea erabaki du udalak. Aurrekontuan erabiliko diren milioi eta erdi euroez gain, 2011n gauzatu gabe geratu ziren inbertsioen inkorporazioak egingo ditu udalak 2011ko aurrekontuaren gainean. Beheko taulan ikus daitezke 2012an egingo diren inbertsioak. «Beraz murrizketa giro honetan geldirik geratuko garenik ezingo du inork esan, gauza asko egiteke geratuko direla zalantzarik ez dago. Legealdiko planean guztion artean eta herritarren aho-

tsa entzunda lehenesten diren egitasmoetarako indarrak gordetzea pentsatu dugulako».

Horren haritik, guztion artean erabakitako norabidean, «aurrekontuen norman jasotzen den arabera, maileguen amortizazioan erabiliko dugun adina zor berria konprometitzeko ahalmena izango dugu (500.000€ inguru). Diru kopuru horrekin, gure zorpetze mailan %10ren azpitik geratuko ginateke».

Inbertsioen atalean, orain arte gertatu izan dena salatu nahi izan du udalak: «aurrekontuetan jarritakoa baino askoz

gehiago gastatu da. Alegia, aurrekontuetan kopuru bat azalduagatik, likidazioan, kopuruak asko igo dira».

Las inversiones serán las que más noten la situación económica. Al millón y medio de euros que recoge el presupuesto, se le añadirán las inversiones de los proyectos que no se realizaron el año pasado. Muchas ideas no se podrán llevar a cabo, por que hemos pensado guardar fuerzas para las iniciativas en las que han participado los vecinos. A su vez, el ayuntamiento ha querido denunciar la gestión que hasta ahora se ha hecho de las inversiones: «Se ha gastado mucho más de lo que recogían los presupuestos».



Inbertsioak:

2011tik datozenak

Espaloiak: Esteban Lasa, Martina Maiz eta Foru kaleak	237.566 €
Ur sarea, Astigarretan	60.000 €
Igogailua (Juan XXIII)	400.000 €
Lur erosketa	100.000 €
Proiektuak	60.000 €

2012ko inbertsioak

Arana kaleko peatonalizazioa	275.000 €
Baratza sozialak.....	30.000 €
Karreratarrak kaleko urbanizazioa	100.000 €
Martina Maiz parkea	50.000 €
Antzizar kaleko aparkalekua egokitzea	20.000 €
Garabia erostea	63.000 €
Liburutegiko obrak amaitzea	20.000 €

»Goian: Arana kalea.
»Behean, ezkerrean: Karreratarrak kaleko eskailerak.
»Behean, eskuinean: Martina Maiz parkeko jolastokia.

Datozen hilabeteetako lanketak

Udalak hemendik ekainera bitartean landuko dituen gaiak honako hauek dira, arlo bakoitzaren arabera banatuta:

Zerbitzuak

- Euskaltegiko obra.
- Gudugarreta auzoko argiteria.
- Ospakizun zibiletako ordenantza.

Obra del euskaltegi. Iluminación del barrio Gudugarreta. Ordenanza para las celebraciones civiles.

Euskara

- Hitzarmenetako hizkuntza irizpideen azterketa.
- EBPNa berritzeko bideak jartzea.

Estudio de los criterios lingüísticos en los convenios. Renovación del plan de normalización del euskera (EBPN).

Hirigintza

- Baratza sozial eta ekologikoak.
- Arana kaleko peatonalizazioa.
- Igartzako parkina.
- Bidegorri proiektua.
- Espaloi konponketa.

Proyecto de huertas sociales y ecológicas. Peatonalización de la calle Arana. Parking de Igartza. Bidegorri. Reparación de aceras.

Kirola

- Kiroldegiko instalazio hutsen lanketa.
- Kiroldegiko tabernaren kudeaketa.

Estudio de las instalaciones vacías del polideportivo, y gestión del bar.

Gazteria

- Gaztetxearekin harremanak sakondu.
- Kiroldegiko lokalen erabilera.
- Herriko gazteen lokalak.

Mejorar relaciones con el Gaztetxe. Uso de los locales del polideportivo. Locales juveniles.

Parte hartzea

- Udaleko langileentzat formakuntza.

- Parte hartze prozesu desberdinak jarriko dira martxan: kiroldegiko lokalak, terrazak, EBPN...

Formación para trabajadores municipales. Varios procesos de participación: locales del polideportivo, terrazas, EBPN...

Hezkuntza

- Ikastetxeekin hitzarmenak.

Convenios con los centros educativos.



- **Gizarte ekintzetarako laguntzak eta bekak eskatzeko oinarriak arautu ditu udalak; zabalik dago eskaerak egiteko epea** ••

deei dirulaguntzak emateko arauak zehazten dira.

Lankidetzaren proiektu horietan parte hartzen duten gazteentzako bekak eskatzeko oinarriak ere onartu dira. Kasu horretan, udalaren asmoa «garapenerako lankidetzaren ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturaren elkartasun-baloreak sustatzea da.

Bestetik, Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurrak Beasaingo familietan hartzeko programak ere diruz lagunduko ditu udalak.

Eta azkenik, ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako dirulaguntzak emateko oinarriak ere onartu dituzte. Laguntza horien helburua, hondamendi naturalak, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsonak eta erkidegoak laguntzea da.

Lankidetzaren proiektuak

Udalak lankidetzaren proiektuetarako eta gizarte ekintzetarako laguntzak eta bekak eskatzeko oinarriak onartu ditu

Beasaingo Udalak martxoaren 15eko osoko bilkuran onartu zituen lankidetzaren proiektuetarako eta gizarte ekintzetarako laguntzak eta bekak eskatzeko oinarriak. Lau deialdi egin dituzte guztira; horietan eskaerak egiteko epea zabalik dago, eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko informazioa udal bulegoetan edo

www.beasain.net webgunean jaso daiteke.

Aurreneko laguntza, garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzaren proiektuetarako da. Bertan, herrialderik txiroenetako biztanleen gizarte eta ekonomia egoera garatu eta hobetzeko jarduerak burutzea helburu nagusiz duden irabazi asmorik gabeko erakun-

Udalak tabernetako terrazen araudia finkatu nahi du

Gero eta gehiago dira terraza jartzen duten edo jarri nahi duten tabernariak, baina honen inguruko ordenantzarik ez dagoela eta, gaia arautzeko beharra ikusi du udal gobernuak. Hori dela eta, ordenantzaren zirriborro bat landu dute, eta datozen aste eta hilabeteetan, testua osatu, eztabaidatu eta uda aurretik onartu nahi lukete.

Gobernu taldeak egin duen zirriborroa, tabernariei eta alderdi politiko guztiei aurkeztuko diete, proposamena aztertu eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Hurrengo udal batzordearen bileran landuko dute gaia alderdiekin. Tabernariekin, berriz, maiatza aldera egingo dituzte bilerak. Behin ekarpenak jasota, udal gobernu taldearen asmoa «ahalik eta adostasun zabalena» duen testua aurkeztu, eta ordenantza ekainean onartzea da.



Udaletxeko atek zabalik

Udaletxera sartzeko dauden bi atek (sarrera nagusia dena eta musika eskolara igotzekoa) zabalik egongo dira hemendik aurrera. Orain arte ateoriek irekitzeko eskatu behar izan zaie udaltzainei, baina martxoaren 26tik aurrera, irekita egongo dira biak.

Loinatz jaietako kartel lehiaketako epea zabaldu dute

Udaleko kultura eta euskara batzordeak, aurtengo Loinatz jaietako kartela izango dena aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lanak, apirilaren 12an aurkeztu behar dira eta sari banaketa apirilaren 17an egingo dute. Lehiakideek bi mailatan hartuko dute parte. A mailan, 15 urtetik gorakoak; eta B mailan 7 eta 15 urte artekoak. Kartelak, «2012ko Loinatz jaiak. Maiatzaren 18tik 27ra lema izan behar du».

La comisión de cultura y euskara ha organizado el concurso para elegir el cartel de las fiestas de Loinatz. Los trabajos se entregarán antes del 12 de abril. El concurso se divide en dos categorías: categoría A (a partir de 15 años) y categoría B (7-15 años). En el cartel deberá de aparecer la siguiente frase: «2012ko Loinatz jaiak. Maiatzaren 18tik 27ra».



Emakumeen eguna gogoan

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen egin dira azken asteetan Beasainen. Batetik, Igartza multzoko ermitan, emakumearen omenez Clara Gangutia margolariak egindako koadroa jarri da. Herriko elkarteek ere, parte hartu dute, ekitaldi ezberdinak antolatuta. Asmube elkarteak Pinpirinak antzerki taldeak, esaterako, ikuskizuna eskaini zuen, abesbatzarekin batera. Bategite eta Irribarre elkarteek berriz, emakumeen egoeraren inguruko mahai inguru bana egin zuten.

martxoa

30 ostirala

19:00 Aitor Castañaresen 'CAFeko teknologien garapena, sorreratik egunera arte' hitzaldia, Igartzan.

22:15 Antzerki garaia: 'La lechuga', Glu-Glu taldearen eskutik. Usurbe Antzokian.

31 larunbata

20:00 Kontzertua: Musikeneko ikasleak (sopranoa eta gitarra). Igartza jauregian.



Glu-Glu taldeak 'La lechuga' antzezlan eskainiko du.

Erakusketak

Apirilaren 20tik 29ra: Erakusketa: 'Igartza saria' mendiko argazki lehiaketa, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkarte.

Apirilaren 23tik 29ra: Erakusketa: 'Meteoritoak', Igartza jauregian. Antolatzailea: Aranzadi zientzia elkarte.

GOIENIZ
zinekluba

Filma: 'Los colores de la montaña' filma.
Zuzendaria: Carlos Cesar Arbelaez.
Eguna: Martxoak 29
Ordua: 21:00etan
Tokia: Usurbe antzokian.



apirila

13 ostirala

18:00-22:00 Denda-ardo azoka, Bideluze plazan. Antolatzailea: Bareak merkatarik elkarre.

14 larunbata

20:00 Kontzertua: Kantaginjazz. Igartza jauregian.

12:00-14:30 eta 18:30-22:00 Denda-ardo azoka, Bideluze plazan. Antolatzailea: Bareak merkatarik elkarre.

15 igandea

08:00 Mendi irteera: Beasain-Akapulko-Beasain. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

20 ostirala

19:00 Bertsomovieda lehiaketako sari ematea. Igartza jauregian.

21 larunbata

19:00 Udaberriko bertso jaialdia. Gernika pasealekuko frontoian.

22 igandea

08:00 Mendi irteera: Beasain-Esparru-Lazkao. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

23 astelehena

17:30 Ipuin kontaketa: 'Printzesa eta ilarra'. Udal Bibliotekan.

26 osteguna

09:30 Haur zinea eskolaumeentzat: 'Ordezko' filma. Usurbe antzokian.

27 ostirala

15:00 Ikastetxeei zuzendutako entzunaldi didaktikoa. Usurbe antzokian.

15:00 Hitzaldia: 'Udaberriko zerua begi-bistaz'. Igartza jauregian.



19:00 Hitzaldia: 'Bizitza extralurtarraren bilaketa'. Igartza jauregian.

22:00 Behaketa astronomikoa. Igartza jauregian.

28 larunbata

20:00 Kontzertua: Jazz laukotea. Igartza jauregian.



Ardo azoka egingo dute apirilaren 13an eta 14an.

**BEASAINGO
GAZTETXEA**

13 ostirala

20:30 Jangela begetarianoa.

22:30 Kontzertua: Pol Pot (Zaragoza) eta Gora Gora Kids (EH). Ondoren, Olarius & Brothers rock Djak.

27 ostirala

19:00 Joseba Azkarragaren 'Euskal Harriak' liburuaren aurkezpena.

21:00 Jangela begetarianoa.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala
Helbidea: Loinazko San Martin plaza
Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefonoa: 943 02 80 50
Webgunea: www.beasain.org
Disainua: Bidera Zerbitzuak

Herritarrak hartzeko ordutegiak

Udal gobernu taldeko zinegotziek, udal batzordeetan parte hartzeko deia egingen diete herritar guztiei. Hala ere, batzorde horiez gain, zuzenean zinegotziekin hitz egin nahi duenak, badu horretarako aukera, zinegotzi bakoitzak herritarrak hartzeko harrera ordu bat baitu astean.

Los concejales que forman el equipo de gobierno quieren animar a todos los ciudadanos a participar en las distintas comisiones municipales. Además, el que quiera hablar directamente con los concejales, puede emplear las horas que dedica cada uno de ellos a la atención al ciudadano.

Koldo Agirre (alkatea)

Hirigintza, ogasuna eta ondarea/Urbanismo, hacienda y patrimonio

Eguna: Astelehena
Ordua: 19:00-20:00



@bildu

Mari Mar Celaya

Turismoa, zerbitzuak, landa ingurunea eta ingurumena/

Turismo, servicios, medio rural y medioambiente

Eguna: Asteartea
Ordua: 12:00-13:00



@bildu

Aitor Larburu

Udal antolakuntza/ Organización municipal

Eguna: Astelehena
Ordua: 18:30-19:30



@bildu

Asier Sarriegi

Gazteria eta kirola/ Juventud y deporte

Eguna: Astelehena
Ordua: 18:30-19:30



@bildu

Zezenia Herrador

Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza/

Participación, igualdad, migración y educación

Eguna: Asteazkena
Ordua: 17:30-18:30



@bildu

Iñaki Saldaña

Gizarte ongizatea/ Bienestar social

Eguna: Asteazkena
Ordua: 15:00-16:00



@bildu

Unai Baztarrika

Kultura eta euskara/ Cultura y euskara

Eguna: Astelehena
Ordua: 16:30-17:30



Nahia

Batzordeen egunak eta orduak

Udal batzorde guztiak herritarrei irekiak izango dira. Ondoko lerroetan, batzorde bakoitzaren bilera eguna eta ordua zehazten da:

- **Ogasuna eta ondarea:** Hileko 4. osteguna, 15:30ean.
- Hacienda y patrimonio: 4º jueves de cada mes (15:30)
- **Udal antolakuntza:** Hileko 1. astelehena, 19:00etan.
- Organización municipal: 1º lunes de cada mes (19:00)
- **Hirigintza:** Hileko 2. eta azken astelehenak, 15:30ean.
- Urbanismo: 2º y último lunes de cada mes (15:30)
- **Kultura eta euskara:** Hileko bigarren asteazkena, 18:30ean.
- Cultura y euskara: 2º miércoles de cada mes (18:30)
- **Turismoa eta merkataritza:** Hileko 2. astelehena, 18:30ean.
- Turismo y comercio: 2º lunes de cada mes (18:30)
- **Zerbitzuak, landa ingurunea eta ingurumena:** Hileko 2. asteartea, 18:30ean.
- Servicios, medio rural y medioambiente: 2º martes de cada mes (18:30)

- **Gazteria eta kirola:** Hileko 2. astelehena, 19:00etan.
- Juventud y deporte: 2º lunes de cada mes (19:00)
- **Gizarte ongizatea:** Hileko 3. asteazkena, 18:00etan.
- Bienestar social: 3º miércoles de cada mes (18:00)
- **Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza:** Hileko 3. astelehena, 18:30ean.
- Participación, igualdad, migración y educación: 3º lunes de cada mes (18:30)



Osoko bilkurak, hileko lehen ostegunean egingo dira, 19:00etan.

Los plenos se celebrarán el primer jueves de cada mes, a las 19:00.